

# Diagnostikoa: emakumeek eta gizonek ikerketa-arloan duten parte-hartzea





## ESKERTZA

Hemen aurkezten den diagnostikoa egiteko, lehena UPV/EHUn, beharrezkoa izan da pertsona askoren esku-hartzea, eta zilegi da, beraz, haiek hemen aipatzea eskaini duten lankidetzak espresuki eskertzeko.

UPV/EHUren Ikerketaren arloko errektoreordetzak eta Irakasleen Zerbitzuak haien datu-baseak ireki zizkieten Berdintasunerako Zuzendaritzari diagnostiko hau landu ahal izateko, baina bidean, pertsona askok, izen-abizenekin, eginkizun hau erraztu dute.

Ikerketaren kudeaketa-zuzendari Antón Romo Solerrek eta irakasleen eta ikertzaileen zerbitzuburu Edurne Intxaurre Arrizabalagak baimena eman ziguten datu-baseetara sartzeko, eta sortu zitzaizkigun zalantzak azaldu zizkiguten, batez ere, lanaren abiapuntuan.

IKTen gerenteordetzako Iñaki Sastre Gonzálezek eta Luis Miguel Sierra Castañok Bitam-Artusen erabileraren hasi-masiak azaldu zizkiguten. Tresna ez bada hobeto, erabili ez da, inola ere, maisu eta maistra egokiak izan ez ditugulako.

Doktorego-ataleko Belén Sánchez Ulaciak, Josu Libano Goikoetxeak eta Ana Regidor Junquerak haien datu-baseak erabiltzen utzi ziguten, hain ondo inplementatuak eta horrenbesteko ahaleginaz mantendu eta osatzen dituztenak.

Aipamen berezia merezi du, ordea, esandako pertsona guztiak koordinatu dituenak. Diagnostiko honetan lan-ordu asko behar izan dira —datuak bilatu, modu koherentean antolatu, diagnostikoa egiteko itemak definitu, datuen egokitasuna aztertu, eragozpenak entzun, haiek aintzat hartuta lana berregin...— eta ordu horiek, ahalegin pertsonalaz gainera, zor dizkiogu:

Berdintasunerako Batzordeko kide Juan Iturbe Barrenetxeari,

Eskuzabaltasun osoz, bere gain hartu baitu UPV/EHUren Berdintasunerako Batzordeak hemen aurkezten duen zirriborroa lantzeko ardura.

Espero dugu lan honek lagundu egingo duela, lehenik eta behin, egoera bat agerian jartzen, eta, bigarrenez, egokiak diren neurriak hartzen, emakumeek eta gizonek tratatu bera eta aukera berberak izan ditzaten UPV/EHUren ikerketa-arloan.

## ERABILITAKO LABURDURAK, HITZAK ETA SIGLAK

Aldea	Emakumeen eta gizonen kopuruen arteko aldea
Batez besteko aldea	Emakumeak eta gizonak buru izan dituzten ikerketa-proiektuei emandako finantzaketaren batez bestekoen arteko aldea
Ema/ Emak/Emakumeak	Emakumeak
Ema – UFI	Emakumeak PIUetan
Ema media	Emakumezko INei emandako finantzaketaren batez bestekoa
Ema proy	Emakumeak buru dituzten proiektuen kopurua
Emakumeak/Ema(k)	Emakumeak
Giz/Gizonak	Hombres
Giz – UFI	Gizonak PIUetan
Giz media	Gizonezko INei emandako finantzaketaren batez bestekoa
Giz proy	Gizonak buru dituzten proiektuen kopurua
Guztira	Guztira
Ik – Ema	Emakumezko ikertzaileak
Ik – Giz	Gizonezko ikertzaileak
Ikerketa	Ikerketa
Iker./Ikeretz.	Emakumezko eta gizonezko ikertzaileak
IN	Emakumezko edo gizonezko ikertzaile nagusia
PDI	Irakasleak eta ikertzaileak
PDI doctor	Irakasle eta ikertzaile doktoreak
PI-Ema	Emakumeak langile taldean
PI-EmaD	Emakumezko doktoreak langile taldean
PI-Giz	Gizonak langile taldean
PI-GizD	Gizonezko doktoreak langile taldean
Langile taldea	UPV/EHUren irakasle taldea (plantilla)
PIU	Prestakuntza eta Ikerketa Unitatea

<b>I. AURKEZPENA</b> .....	<b>1</b>
1. SARRERA.....	1
2. ITURRIAK ETA METODOLOGIA .....	1
<b>II. SINTEZIA</b> .....	<b>4</b>
1. EMAKUMEEN PARTE-HARTZEAREN EHUNEKOA IKERKETA-PROIEKTUETAN, LANGILE TALDEAN DUTEN PRESENTZIARENA BAINO ZERTXOBAIT TXIKIAGO DA; GIZONENA, AITZITIK, ZERTXOBAIT HANDIAGO DA. ....	4
2. IKERKETAN PARTE HARTZEN DUTEN EMAKUMEEN EHUNEKOA GIZONENA BAINO ZERTXOBAIT TXIKIAGO DA: % 4,73, 2011N.....	4
3. EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA IKERTZAILE NAGUSI GISA NABARMEN TXIKIAGO DA IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN DOKTORE TALDEAN DUTEN PRESENTZIARI DAGOKIONEZ. ALDE HORI ZIENTZIA-ARLO GUZTIETAN ETA ADIN-TARTE GUZTIETAN EGIAZTATZEN DA. ....	5
4. EMAKUMEEK, BATEZ BESTE, SALBUESPENEN BAT IZAN EZIK, DIRU GUTXIAGO JASOTZEN DUTE PROIEKTUAK EGITEKO, EDOZEIN JAKINTZA-ARLOTAN ETA ADIN-TARTETAN. ....	5
5. EMAKUMEEK GIZONEK BAINO GEHIAGO PARTE HARTZEN DUTE IKERKETARI EKITEARI ETA BERRIZ HELTZEARI DAGOZKIEN PROIEKTUETAN. ..	6
6. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN PROIEKTUAK EMAKUMEEK ZUZENDU ETA GARATZEN DITUZTE GEHIENBAT .....	6
7. KANPOKO ENPRESEKIN EGITEN DIREN KONTRATUETAN, GIZONEN PARTE-HARTZEA HANDIAGO DA, % 56, NAHIZ ETA OSASUN ZIENTZIETAN ETA ZIENTZIA ESPERIMENTALETAN EMAKUMEEN EHUNEKOA HANDIAGO IZAN, % 68,11 ETA % 53,30, HURRENEZ HURREN..	7
8. IKERKETA-TALDEAK, BATEZ ERE, GIZONEK ZUZENTZEN DITUZTE, HAIEK IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN DOKTORE TALDEAN DUTEN PRESENTZIARI DAGOKIONEZ OSO GAINETIK. ....	7
9. AZKEN URTEETAN, EMAKUMEEK GIZONEK BAINO DOKTOREGO-TESI GEHIAGO DEFENDITU DITUZTE, IRAKASKUNTZA TEKNIKOETAN IZAN EZIK. ....	8
10. GIZONEK ZUZENDU DITUZTE DOKTOREGO-TESI HORIEN ZATIRIK HANDIENA, % 67,75, 2012. URTEAN, NAHIZ ETA PROGRESIO BAT EGON DEN EMAKUMEZKO ZUZENDARIEN KOPURUAN: 57 IZATETIK, % 20,43, 2000. URTEAN, 168 IZATERA, % 32,25, 2012. URTEAN. ....	8
<b>III. IKERKETAREN EGOERA 2011. URTEAN</b> .....	<b>9</b>
1. IKERKETA-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA .....	9
1.1. Parte-hartzearen arabera .....	9
1.2. Zientzia-arloaren arabera .....	10
1.3 Adin-tartearen arabera .....	11
1.4 Parte-hartze motaren eta zientzia-arloaren arabera.....	12
1.5 Parte-hartze motaren eta adin-tartearen arabera .....	14
2. PROIEKTUEI EMANDAKO BATEZ BESTEKO FINANTZAKETA .....	16
2.1. Zientzia-arloaren arabera .....	17
2.2 Adin-tartearen arabera .....	17
3. IKERKETARI EKITEARI ETA BERRIZ HELTZEARI DAGOZKIEN PROIEKTUAK .....	17
4. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN PROIEKTUAK .....	18
5. IKERKETA-TALDEAK.....	18
6. DOKTOREGO-TESIAK.....	19
7. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETAKO UNITATEAK (PIU).....	19
7.1. Parte-hartzearen arabera .....	20
7.2. Zientzia-arloaren arabera .....	20
7.3 Adin-tartearen arabera .....	22
<b>IV. EMAKUMEEK ETA GIZONEK IKERKETAN IZAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN BILAKAERA</b> .....	<b>25</b>
1. IKERKETA-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA .....	25
1.1 Parte-hartze motaren eta urtearen arabera .....	26
1.2 Zientzia-arloaren eta urtearen arabera .....	28
1.3 Adin-tartearen eta urtearen arabera .....	32

1.4 Parte-hartze motaren, zientzia-arloaren eta urtearen arabera .....	36
1.5 Parte-hartze motaren, adin-tartearen eta urtearen arabera .....	44
2. EMANDAKO FINANTZAKETARI BURUZKO AZTERKETA .....	51
2.1 Urteen arabera .....	52
2.1 Zientzia-arloaren eta urteen arabera .....	53
2.3 Adin-tartearen eta urteen arabera .....	58
2.4 Urteen eta adin-tartearen arabera .....	62
2.5 Urteen eta zientzia-arloaren arabera .....	67
3. URTEAN PROIEKTU BAT BAINO GEHIAGO ZUZENTZEN DUTEN PERTSONAK .....	72
4. IKERKETARI EKITEKO ETA BERRIZ HELTZEKO PROIEKTUAK .....	73
5. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN PROIEKTUAK .....	77
6. KONTRATUAK KANPOKO ENPRESEKIN .....	80
6.1 Urtearen arabera .....	80
6.2 Zientzia-arloaren arabera .....	81
6.3 Ekintza motaren arabera .....	82
7. DOKTOREGO-TESIAK .....	83
7.1. Doktorego-tesiak zientzia-arloaren arabera .....	84
7.2. Doktorego-tesien emakumezko eta gizonezko zuzendariak .....	87
<b>I. ERANSKINA: DATUEI ETA METODOLOGIARI BURUZ .....</b>	<b>89</b>
1. IKERKETARI BURUZKO DATUAK .....	89
2. LANGILE TALDEAREN DATUAK .....	110
3. KANPOKO ENPRESEKIN EGINDAKO KONTRATUEI BURUZKO DATUAK .....	119
4. IKERKETA-TALDEEI BURUZKO DATUAK .....	121
5. DOKTOREGO-TESIEI BURUZKO DATUAK .....	122
6. IKERKETARI EKITEKO ETA BERRIRO HELTZEKO PROIEKTUEI BURUZKO DATUAK .....	126
7. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN PROIEKTUEI BURUZKO DATUAK .....	128
<b>II. ERANSKINA. BESTELAKO BEGIRADA BAT: EMAKUMEZKO ETA GIZONEZKO IKERTZAILE TALDEAREN BERARIAZKO AZTERKETA .....</b>	<b>131</b>
1. AURKEZPENA .....	131
2.- INAK ETA EMAKUMEZKO ETA GIZONEZKO IKERTZAILEAK .....	132
2.1 Zientzia-arloaren eta urtearen arabera .....	134
2.2 Adin-tartearen arabera .....	140
3.- KANPOKO ENPRESEKIN EGINDAKO KONTRATUAK .....	145
3.1 Zientzia-arloaren arabera .....	145
3.2 Ekintza motaren arabera .....	145
4. IKERKETA-TALDEAK .....	146
5.- INTRASEXU DATUEN TAULAK .....	146

# I. Aurkezpena

## 1. Sarrera

Lan honek UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2010-2013) 2.1 puntuari aurreikusitako agindua betetzen du: “Ikerketan berdintasuna sustatzea: Emakumeek ikerketaren esparruan duten parte-hartzeari buruzko diagnostiko bat egitea.”

## 2. Iturriak eta metodologia

Datuak hiru arlo handitatik lortu dira, bakoitzak bere atal eta datu-baseak dituena: ikerketa, langile taldea eta doktoregoa.

- Ikerketa-arlotik emakumeek eta gizonek ikerketa-proiektuetan duten parte-hartzeari buruzko informazioa lortu da. Horretarako “Bitam Artus Web G7” tresna erabili da; hartan, Ikertutik datozen datuekin kubo sorta bat definituta dago. Kuboak aztertu ondoren, egokitzen hartu ziren lan honetarako. Horrela lortutako datuak Excel fitxategietara esportatu dira, eta, barne-koherentzia egiaztatzen ondoren, hemen aurkezten diren taulak eta grafikoak sortu dira.
- Horrela lortutako ikerketa-datuak erreferentzia-esparru bat behar zuten, eta esparru hori emakumeek eta gizonek UPV/EHUren langile taldean duten presentzia da. Horretarako, item hori txertatu da lanean. Langile taldearen datuak lortzeko tresna bera erabili da, “Bitam Artus Web G7”, eta jadanik definitutako kuboak. Kasu honetan, kuboak langile taldearen aplikaziotik elikatzen dira, hau da, Meta4tik.

Garrantzitsua da lanaren hasieran hartutako erabaki baten berri ematea: langile taldean arduraldi osoa duten irakasleak soilik hautatu dira; eta, beraz, lanaldi partziala duten irakasleei buruzko datuak bazter batera utzi dira. Arrazoia hau da: arduraldi osoko irakasleen kontratuak zehazten du haien denboraren zati bat ikerketari eskaini beharko diotela; lanaldi partziala duten irakasleenak, berriz, soilik irakaskuntza-zereginak eta tutoretzak egiteko kontratatu dituztela. Ezinezkoa denez jakitea lanaldi partzialeko irakasleen zer zatik ikertzen duen eta zer zatik ez, haiek ez sartzeko erabakia hartu zen, langile taldeko datuetan aldaketa nabarmenak saihesteko. I. eranskinean, irakasleei eta ikertzaileei dagokien zatian, kanpoan utzi den taldearen zifrekin osatutako taula bat agertzen da.

Erabaki horren ondorioak hauek dira: aztertutako talderen baten barruan lanaldi partzialeko irakasleek ez badute ikerketan parte hartzen, talde horretako datuek ez dute eraginik izango langile taldearekin konparatzen ditugunean; parte hartzen badute, berriz, ikerketako datuak eragin positiboa izango dute, estatistika hobetuko da. Beraz, erabaki horren eragina zero edo positiboa da, inoiz ez negatiboa, baina garrantzitsua da aipatzea.

Erabaki horrek, gehienbat, Osasun Zientzien arloari eragiten dio, non arduraldi osoko langileak gehiago diren arduraldi partzialekoak baino. Eta arduraldi partziala duten pertsonen artean, gehien-gehienak gizonek dira; ikus I. eranskineko zifrak.

- Doktorego-datueterako Doktorego-saileko datu-basea erabili da, datu horiek Unibertsitateko Kudeaketa Akademiko Berritutik datozen datuak baino askoz bizkorrago prozesatzen baitira.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi metodologiko batzuk:

- Ateratako datuen barne-koherentziaren probak eranskinetan azaltzen dira, baita kasu bakoitzean hartutako erabakiak ere.
- Emakumezko eta gizonezko ikertzaileen datuak langile taldeko datuekin konparatzen direnean, azken horiek langile talde osoarenak dira, den-denek esku hartzen baitute ikerketan, haien titulazioa gorabehera.

Aldiz, emakumezko eta gizonezko ikertzaile nagusien datuak langile taldeko datuekin konparatzen direnean, haietan doktoreak diren langileak soilik sartzen dira, ikerketa-proiektu baten buru izateko kualifikatuta dagoen bakarra.

- Nahiz eta hasieran ikerketa-proiektu bakoitzean kontratatutako pertsonen datuak ere atera ziren, datu horien koherentziaren azterketa batek erakutsi zuen barne-sakabanatze handiegia zegoela, baita kontuan hartu beharreko faktore kopuru handia ere, lor zitezkeen ondorioak, gutxienez, adierazgarriak izan zitezzen. Horregatik, txosten honetan ez sartzea erabaki da.
- Gainera, kanpoko enpresekin egin diren ikerketa-kontratuetan kontratatutako pertsonen datuak ere atera dira, baina horren urriak eta fidagarritasun gutxikoak direnez gero, ez dira sartu.
- Ikerketakoak ez bezala, doktorego-tesien datuak aipamenik gabe aurkeztu dira, kasu honetan langile taldearekin erlaziorik ez dutela uste izan baita.
- Zientzia-arlo batzuk oso jendetsuak dira, eta beste batzuk, ez horrenbeste. Horrek, zenbaitetan, ehunekoetako grafikoan datu batzuk baldintzatzen ditu. Hori gertatzen denean, behar bezala komentatuko da.
- Grafikoan zenbakiak elkarren hurrenekoak dira, eta gehienetan, ikerketa-datuak eta langile taldearen datuak modu bateratuan aurkezten dira, eta adierazi egiten da soilik irakasle eta ikertzaile doktoreena denean. Hauek dira guztien etiketak:
  - Ik-Giz: Gizonezko ikertzaileak, gorriz
  - Ik-Ema: Emakumezko ikertzaileak, urdinez
  - PI-Giz: Langile taldeko gizonak, kolore gorriaren beste tonu batean
  - PI-Ema: Langile taldeko emakumeak, kolore urdinaren beste tonu batean.
- Txostenean eskaintzen den ehuneko mota absolutua deituko duguna izango da: emakumeen eta gizonen presentziaren ehunekoa langile talde osoaren gain kalkulatu da; beraz, bi ehuneko batura beti 100 da.
- Zientzia-arloek hainbat izen dituzte. Hainbat aukeretatik bat hautatu da.



- Ikerketa-deialdi askoren erabaki-hartzea eta haiek tramitatzeko dagoen dinamikaren beraren ondorioz, urte natural bati dagozkion datuak ez dira osatzen hurrengo urtea aurreratu samar egon arte. Hori dela eta, ez dira 2012. urteko datuak hautatu.
- Lan honetako eskema hau da:
  - Sintesi bat: ondorioen dekalogo bat
  - Emakumeen eta gizonen egoera 2011. urteko ikerketan, datu osoak eskura ditugun azkena
  - Emakumeen eta gizonen egoera ikerketan, azken 5 urtean
  - Emakumeak eta gizonak buru dituzten proiektuei emandako finantzaketa
  - Kanpoko enprekin dauden kontratuak
  - Doktorego-tesiak: emakumezko eta gizonezko doktoregaiak, eta emakumezko eta gizonezko zuzendariak

2011. urtean, ikerketa-taldeak zuzentzen dituzten emakumeen eta gizonen datua ere aztertu da.

Azken 5 urteetako azterlanean, bi proiektu mota aztertu dira espezifikoki: ikerketari ekitekoak (berriz heltzearenak ere barne hartzen dituztenak); eta genero-ikuspegia duten proiektuak.

Lanak bi eranskin ditu:


- I. eranskina: Datuei eta Metodologiari buruzkoa; lortutako datuei buruzko taulak ditu
- II. eranskina: Emakumeek eta gizonen nork bere sexukoei dagokienez duten egoerari buruzkoa.

- Honako banaketa hauek aztertu dira:


- Parte-hartzearen arabera: emakumezko edo gizonezko ikertzaile nagusia (IN) edo emakumezko edo gizonezko ikertzailea (proiektuaz arduratzen den taldeko kidea) izan daiteke
- Zientzia-arloaren arabera
- Adin-tartearen arabera
- Parte-hartze motaren eta zientzia-arloaren arabera
- Parte-hartze motaren eta adin-tartearen arabera
- Parte-hartzearen ehunekoak ikerketa-proiektuetan, langile taldean duen presentziari dagokionez.

## II. SINTESIA

1. Emakumeen parte-hartzearen ehunekoa ikerketa-proiektuetan, langile taldean duten presentziarena baino zertxobait txikiagoa da; gizonena, aitzitik, zertxobait handiagoa da.




2. Ikerketan parte hartzen duten emakumeen ehunekoa gizonena baino zertxobait txikiagoa da: % 4,73, 2011n.




**Oharra:** 2011. urteko parte-hartzea nabarmen handitu izana Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak (PIU) martxan jartzeari zor zaio.


3. Emakumeen parte-hartzea ikertzaile nagusi gisa nabarmen txikiagoa da irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten presentziari dagokionez. Alde hori zientzia-arlo guztietan eta adin-tarte guztietan egiaztatzen da.




4. Emakumeek, batez beste, salbuespenen bat izan ezik, diru gutxiago jasotzen dute proiektuak egiteko, edozein jakintza-arlotan eta adin-tartetan.




5. Emakumeek gizonak baino gehiago parte hartzen dute ikerketari ekiteari eta berriz heltzeari dagozkien proiektuetan.




6. Genero-ikuspegia duten proiektuak emakumeek zuzendu eta garatzen dituzte gehienbat




7. Kanpoko enpreekin egiten diren kontratuetan, gizonen parte-hartzea handiagoa da, % 56, nahiz eta Osasun Zientzietan eta Zientzia Esperimentaletan emakumeen ehunekoa handiagoa izan, % 68,11 eta % 53,30, hurrenez hurren.




8. Ikerketa-taldeak, batez ere, gizonek zuzentzen dituzte, haiek irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten presentziari dagokionez oso gainerik.



9. Azken urteetan, emakumeek gizonak baino doktorego-tesi gehiago defenditu dituzte, Irakaskuntza Teknikoetan izan ezik.




10. Gizonak zuzendu dituzte doktorego-tesi horien zatirik handiena, % 67,75, 2012. urtean, nahiz eta progresio bat egon den emakumezko zuzendarien kopuruan: 57 izatetik, % 20,43, 2000. urtean, 168 izatera, % 32,25, 2012. urtean.



### III. Ikerketaren egoera 2011. urtean


#### 1. Ikerketa-proiektuetan parte hartzea



Parte-hartze osoa:

- Emakumezko ikertzaileen ehunekoa % 44,55 da, % 46,08 izanik emakumeen ehunekoa langile taldean
- Gizonezko ikertzaileen ehunekoa % 55,45 da, % 53,92 izanik gizonen ehunekoa langile taldean

#### 1.1. Parte-hartzearen arabera




	IN	Irakasle eta ikertzaile doktorea	IN %	Irakasle eta ikertzaile doktoreen %
<b>Emakumeak</b>	170	1139	% 34,27	% 42,26
<b>Gizonak</b>	326	1556	% 65,73	% 57,74

Grafikoak agerian uzten du:

- Langile taldean, arduraldi osoan, % 15,48 gizonezko doktore gehiago direla emakumezko doktore baino.
- Tarte hori handitu egiten dela % 31,46ra iritsi arte (% 15,98ko alde garbia) ikerketa-proiektuak zuzentzeko orduan.

- Langile taldeko emakumezko doktoreen % 14,93k eta gizonezko doktoreen % 20,95ek ikerketa-proiektuak zuzentzen dituztela.



Ikerketa-taldeetan parte-hartzeari dagokionez:

- % 46,33 emakumeak dira, eta langile taldean duten presentzia % 46,08koa da.
- % 53,67 gizonezkoak dira, eta langile taldean duten presentzia % 53,92koa da.

## 1.2. Zientzia-arloaren arabera


	Osasun Zientziak	Zientzia Esperimentalak	Gizarte Zientziak	Irakaskuntza Teknikoak	Giza Zientziak
<b>Ik-Ema</b>	% 56,85	% 46,06	% 50,50	% 35,24	% 40,49
<b>PI-Ema</b>	% 62,65	% 48,19	% 50,11	% 34,31	% 43,62
<b>Ik-Giz</b>	% 43,15	% 53,94	% 49,50	% 64,76	% 59,51
<b>PI-Giz</b>	% 37,35	% 51,81	% 49,89	% 65,69	% 56,38

Ehunekoa handiagoa da ikerketan langile taldean baino:

- Arlo hauetako emakumeentzat:
  - Gizarte Zientziak, % 0,39; eta
  - Irakaskuntza Teknikoak, % 0,93
- Arlo hauetako gizonentzat:
  - Osasun Zientziak, % 5,80;
  - Zientzia Esperimentalak, % 2,13; eta
  - Giza Zientziak, % 3,13



## G14. Proiektuetako parte-hartzea langile taldeari dagokionez



**Oharra:** Ehunekoak ateratzen dira pertsona batek ikerketa-proiektu batean parte hartzen duen aldi bakoitza zenbatuz. Proiektu batean baino gehiagotan parte hartuz gero, litekeena da parte-hartzeen baturak langile taldean dagoen pertsonen kopurua gainditzea; horregatik, ehunekoek % 100 gainditzen dute. Hori gertatzen da gizonen kasuan Osasun Zientzietan, eta emakumeen eta gizonen kasuan, Zientzia Esperimentaletan.


### 1.3 Adin-tartearen arabera

	<30	30 - 39	40 - 49	50 - 59	>60
<b>Ik-Ema</b>	% 67,16	% 50,00	% 42,98	% 37,01	% 28,70
<b>PI-Ema</b>	% 59,44	% 53,48	% 45,29	% 40,73	% 28,32
<b>Ik-Giz</b>	% 32,84	% 50,00	% 57,02	% 62,99	% 71,30
<b>PI-Giz</b>	% 40,56	% 46,52	% 54,71	% 59,27	% 71,68

Parte-hartzean aldeak daude adin-tartearen arabera:

- 30 urtetik beherakoan tartean, emakumeek proiektuetan duten parte-hartzea langile taldean duten presentzia baino % 7,72 handiagoa da
- 30etik eta 59ra bitarteko tartetean, gizonetakoak dira langile taldean duten presentzia baino % 3 gehiago parte hartzen dutenak.
- 60 urtetik gorako tartean, ia proportzio berean parte hartzen dute; zertxobait gehiago emakumeek.

## G15. Proiektuetako parte-hartzea langile taldeari dagokionez



Proiektuetan parte hartzen duten gizonen eta emakumeen ehunekoa, langile taldean duten presentziari dagokionez:

- 30 urtetik beherako tartean, emakumeek % 20,04 gehiago parte hartzen dute
- 30 eta 59 bitarteko tartean, gizonak % 10 inguru gehiago parte hartzen dute
- 60 urtetik gorako tartean, ehunekoak hurbildu egiten dira

### 1.4 Parte-hartze motaren eta zientzia-arloaren arabera

Atal honetan 1.1 puntuko datuak hartu dira, eta parte-hartze mota, gizonezko eta emakumezko IN edo ikertzaile bakoitza, aztertu da, zientzia-arloaren arabera.


#### Emakumezko edo Gizonezko Ikertzaile Nagusi gisa

	Osasun Zientziak	Zientzia Esperimentalak	Gizarte Zientziak	Irakaskuntza Teknikoak	Giza Zientziak
<b>Ik-Ema</b>	% 46,34	% 32,08	% 40,85	% 25,87	% 36,59
<b>PI-EmaD</b>	% 55,41	% 41,65	% 45,20	% 33,96	% 38,95
<b>Ik-Giz</b>	% 53,66	% 67,92	% 59,15	% 74,13	% 63,41
<b>PI-GizD</b>	% 44,59	% 58,35	% 54,80	% 66,04	% 61,05

Emakumeek IN gisa duten parte-hartzea irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten presentzia baino txikiagoa da beti.

- Giza Zientziak, % 2,36;
- Gizarte Zientziak, % 4,35
- Irakaskuntza Teknikoak, % 8,09
- Osasun Zientziak, % 9,07
- Zientzia Esperimentalak, % 9,57

Gizonek IN gisa duten parte-hartzea handiagoa da beti, proportzio berean.



Grafiko honek erakusten du gizonezko INen ehunekoak irakasle eta ikertzaileen doktore taldeko gizonen ehunekoak baino handiagoak direla beti.

- Alde txikiena duten arloak —Gizarte Zientziak, % 1,48, eta Giza Zientziak, % 1,07—, parte-hartze ehuneko txikienak dituzten arloak dira.
- Parte-hartze handiagoa duten arloetan —Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak eta Irakaskuntza Teknikoak— gizonen aldeko diferentziak handiagoak bihurtzen dira, % 10 inguru.

#### Gizonezko eta emakumezko ikertzaile gisa

	Osasun Zientziak	Zientzia Esperimentalak	Gizarte Zientziak	Irakaskuntza Teknikoak	Giza Zientziak
<b>Ik-Ema</b>	% 59,62	% 48,45	% 51,78	% 36,92	% 41,05
<b>PI-Ema</b>	% 62,65	% 48,19	% 50,11	% 34,31	% 43,62
<b>Ik-Giz</b>	% 40,38	% 51,55	% 48,22	% 63,08	% 58,95
<b>PI-Giz</b>	% 37,35	% 51,81	% 49,89	% 65,69	% 56,38


Alde txiki bat dago emakumezko ikertzaile/langile talde ehunekoan artean, honako hauetan:

- Zientzia Esperimentalak, % 0,26 gehiago langile taldean baino
- Gizarte Zientziak, % 1,67 gehiago langile taldean baino
- Irakaskuntza Teknikoak, % 2,61 gehiago langile taldean baino

Gizonezko ikertzaile/langile talde kasuan aldeak hauek dira:

- Osasun Zientziak, langile taldean baino % 3,03 gehiago
- Giza Zientziak, langile taldean baino % 2,57 gehiago

## G17. Parte-hartzearen ehunekoa langile taldeari dagokionez



Langile taldean duten presentziari dagokionez duten parte-hartzearen ehunekoetan, emakumeen eta gizonen aldeak adierazgarriagoak diren arloak hauek dira:

- Osasun Zientziak (gizonek % 9,37 gehiago parte hartzen dute); eta
- Irakaskuntza Teknikoak (emakumeek % 8,18 gehiago parte hartzen dute).

**Oharra:** 100etik gorako ehunekoak azaltzen dira pertsona berek parte hartzen dutelako ikerketa-proiektu batean baino gehiagotan.

### 1.5 Parte-hartze motaren eta adin-tartearen arabera


Atal honetan 1.1 puntuko datuak hartu dira, eta parte-hartze mota, emakumezko eta gizonezko IN edo ikertzailea bakoitza, aztertu da, adin-tartearen arabera.

#### *Emakumezko edo gizonezko ikertzaile nagusia*

	<30	30 - 39	40 - 49	50 - 59	>60
<b>Ik-Ema</b>	% 0,00	% 43,24	% 38,18	% 31,50	% 21,43
<b>PI-EmaD</b>	% 64,71	% 52,46	% 45,01	% 38,87	% 27,08
<b>Ik-Giz</b>	% 100,00	% 56,76	% 61,82	% 68,50	% 78,57
<b>PI-GizD</b>	% 35,29	% 47,54	% 54,99	% 61,13	% 72,92

Adin-tarteak aztertuz gero:

- 30 urtetik beherako ikertzaile nagusi bakar bat dago
- Adin-tarte guztietan, emakumeak irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten presentzia baino gutxiago dira, % 5,65 (60 urtetik gorakoen tartean) eta % 9,22 (30 eta 39 urtekoen tartean) artean.



IN gisa duten parte-hartzea handituz doa emakume eta gizonentzat adinean aurrera egin ahala, 60 urtera arte:


- Adin-tarte guztietan, emakumeen parte-hartzea gizonezkoena baino txikiagoa da:
  - % 4,93, 60 urtetik gorakoetan
  - % 5,11, 40 eta 49 urte bitarteko tartean
  - % 5,60, 30 eta 39 urte bitarteko tartean
  - % 6,48, 50 eta 59 urte bitarteko tartean

**Emakumezko eta gizonezko ikertzaileak**

	<30	30 - 39	40 - 49	50 - 59	>60
<b>Ik-Ema</b>	% 67,36	% 50,66	% 43,89	% 38,55	% 31,03
<b>PI-Ema</b>	% 59,44	% 53,48	% 45,29	% 40,73	% 28,32
<b>Ik-Giz</b>	% 32,64	% 49,34	% 56,11	% 61,45	% 68,97
<b>PI-Giz</b>	% 40,56	% 46,52	% 54,71	% 59,27	% 71,68

Proiektuetako parte-hartzean:

- 30 urtetik beherako tartean, emakumezko ikertzaileen ehunekoa gizonezko ikertzaileena baino handiagoa da, termino absolutuetan nahiz langile taldean dituzten ehunekoei dagokienez.
- 60 urtetik gorako tartean, emakumezko ikertzaileen ehunekoa txikia da, baina emakumeek langile taldean duten ehunekoa baino handiagoa, eta gizonezko ikertzaileek, aitzitik, langile taldean duten ehunekoa baino txikiagoa dute.
- Gainerako tartetean, 30 eta 59 urte bitartean, ehunekoak jaitsi egiten dira emakumeentzat, modu absolutuan nahiz langile taldearekiko erlazioan, eta kontrakoa gertatzen da gizonekin.



Grafikoak adierazten digu:

- Muturretako bi adin-tarteetan, 30 urtetik beherakoa eta 60 urtetik gorakoa, emakumeen parte-hartzearen ehunekoa langile taldean duen presentziari dagokionez gizonena baino handiagoa da.
- Gainerakoetan, hau da, erdiko tarteetan, gizonetzkoen ehunekoak handiagoak dira.

## 2. Proiektuei emandako batez besteko finantzaketa

	Proiektuak	Kopuru osoa	Batez besteko kopurua
<b>Emakumeak</b>	166	4.939.121,01 €	29.753,74 €
<b>Gizonak</b>	318	14.627.697,20 €	45.999,05 €

Emakumezko INen proiektuei eta gizonetzko INen proiektuei emandako kopurua zati proiektuen kopurua egiten bada, ikusten da gizonei, batez beste, emakumeei baino 16.245,31€ gehiago eman zaiela.

## 2.1. Zientzia-arloaren arabera

		Proiektuak	Batez besteko kopurua	Aldea	% gutxiago
<b>Osasun Zientziak</b>	Emakumeak	38	28.953,61 €	-9.403,63 €	-% 24,52
	Gizonak	42	38.357,24 €		
<b>Zientzia Esperimentalak</b>	Emakumeak	48	39.238,83 €	-17.020,90 €	-% 30,25
	Gizonak	107	56.259,74 €		
<b>Gizarte Zientziak</b>	Emakumeak	28	27.198,99 €	-7.412,09 €	-% 21,42
	Gizonak	39	34.611,08 €		
<b>Irakaskuntza Teknikoak</b>	Emakumeak	37	20.822,82 €	-20.789,94 €	-% 49,96
	Gizonak	105	41.612,76 €		
<b>Giza Zientziak</b>	Emakumeak	15	28.226,91 €	-22.882,25 €	-% 44,77
	Gizonak	25	51.109,16 €		

Zientzia-arlo guztietan, emakumeek gizonak baino diru gutxiago jasotzen dute, batez beste.

## 2.2 Adin-tartearen arabera

		Proiektuak	Batez besteko kopurua	Aldea	% gutxiago
<b>30 - 39</b>	Emakumeak	32	22.304,00 €	2.117,75 €	% 9,49
	Gizonak	42	20.186,25 €		
<b>40 - 49</b>	Emakumeak	62	30.739,80 €	-19.949,75 €	-% 39,36
	Gizonak	99	50.689,54 €		
<b>50 - 59</b>	Emakumeak	61	32.884,28 €	-16.073,28 €	-% 32,83
	Gizonak	135	48.957,56 €		
<b>&lt;60</b>	Emakumeak	11	28.507,69 €	-23.252,62 €	-% 44,92
	Gizonak	41	51.760,31 €		

30 eta 39 urte bitarteko tartean, emakumeek, batez beste, gizonak baino zertxobait gehiago jaso dute. Hala ere, gainerako tarte guztietan, kontrakoa gertatzen da, eta aldeak nabarmen handiagoak dira.

## 3. Ikerketari ekiteari eta berriz heltzeari dagozkien proiektuak


Proiektu mota honetan, 7 proiektu emakumeek zuzenduak dira, eta 8, gizonak. Haietan 19 emakumek eta 15 gizonak parte hartzen dute

#### 4. Genero-ikuspegia duten proiektuak

Proiektu mota honetan, 5 proiektu emakumeek zuzenduak dira, eta 2, gizonen. Haietan 13 emakumek eta 2 gizonen parte hartzen dute

#### 5. Ikerketa-taldeak

Analisi honetarako oso datu gutxi daude, eta kontuan hartuz talde aktiboak bakarrik agertzen direla, atal honetako datuak, soilik, datuak atera ziren datan ikerketa-taldeak zuzentzen zituzten pertsonen eta haien zientzia-arloari egiten diete aipamena.




Grafiko honetan konparatu egiten dira ikerketa-taldeetako zuzendaritzaren banaketa emakumeen eta gizonen artean, eta 2011. urtean irakasle eta ikertzaileen dokore taldean zuten presentzia:

- Emakumeak eta gizonak oso urrun daude langile taldean duten presentziatik ikerketa-talde bat zuzentzeko orduan:
  - Emakumeak, irakasle eta ikertzaileen dokore taldeko % 45,98, talde-zuzendarien % 28,99 besterik ez dira.
  - Gizonen, irakasle eta ikertzaileen dokore taldeko % 54,02, ikerketa-taldean % 71,01en zuzendaritza hartzen dute beren gain.
  - Hau da, gizonen aldeko % 16,99ko tartea dago.



## G21. Taldeen zuzendaritza zientzia-arloaren arabera 2011n



Zientzia-arlo guztietan, gizonek, ehunekotan, emakumeek baino ikerketa-talde gehiago zuzentzen dituzte.

### 6. Doktorego-tesiak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	% Emak	% Giz	Diferencia
Osasun Zientziak	24	21	45	53,33%	46,67%	6,67%
Zientzia Esperimentalak	52	39	91	57,14%	42,86%	14,29%
Gizarte Zientziak	42	29	71	59,15%	40,85%	18,31%
Irakaskuntza Teknikoak	23	40	63	36,51%	63,49%	-26,98%
Giza Zientziak	21	15	36	58,33%	41,67%	16,67%
GUZTIRA	162	144	306	52,94%	47,06%	5,88%

Irakaskuntza Teknikoetan izan ezik, 2011. urtean doktorego-tesi gehiago defenditu zituzten emakumeek gizonek baino. Eta 151 tesi emakumeek zuzendu zituzten (% 33,19), eta 304, gizonek (% 66,81).

### 7. Prestakuntza eta Ikerketako Unitateak (PIU)

2011. urtean, Prestakuntza eta Ikerketako Unitateen (PIU) lehen deialdia egin zen. Deialdiaren espezifikotasuna eta tartean zeuden pertsona kopuru handia ikusirik, interesgarritzat jo da bereizita aztertzea, hemen aurkezten diren datuetan duen eragina dela-eta.

	2011 PIU	PIU %	Langile taldea	Langile taldea	% langile taldeari dagokionez
<b>Emakumeak</b>	546	% 43,20	2015	% 46,08	% 27,10
<b>Gizonak</b>	718	% 56,80	2358	% 53,92	% 30,45
	1264		4373		% 28,90

Aipagarria da deialdi honetan izan den parte-hartze maila handia: langile taldeko % 28,90ek PIUren batean parte hartzen du; gizonezkoen parte-hartzearen ehunekoa emakumeena baino zertxobait handiagoa da.

PIUen sorrerari esker, 2011. urtean ikerketa-proiektuetan izan den parte-hartze kopurua nabarmen handitu da beste urte batzuei dagokienez, ikerketaren bilakaerari aipamena egiten dieten grafikoetan ikusiko den bezala.

### 7.1. Parte-hartzearen arabera

	Emakume	Gizonezko	Guztira	% Emakume	% Gizonezko
<b>IN</b>	8	34	42	% 19,05	% 80,95
<b>Ikertzaile</b>	538	684	1222	% 44,03	% 55,97

Taula honetan ikus daiteke:

- PIU bakoitzeko ikertzaile kopuruaren batezbestekoa 29 da.
- Emakumezko INen ehunekoa oso apala da (% 19), eta ez dator bat irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten presentziarekin (% 42,2), ez eta PIUetan ikertzaile gisa duten presentziarekin ere.
- Emakumezko ikertzaileen (% 44) eta gizonezko ikertzaileen (% 56) ehunekoak bat datoz neurri handiagoan langile taldeko ehunekoekin (% 46 eta % 54, hurrenez hurren).

### 7.2. Zientzia-arloaren arabera

	Emakume PIU	Gizonezko PIU	Guztira	% Emakume PIU	% Gizonezko PIU	% PI-Emakume	% PI-Gizonezko
<b>Osasun Zientziak</b>	58	62	120	% 48,33	% 51,67	% 62,65	% 37,35
<b>Zientzia Esperimentalak</b>	205	212	417	% 49,16	% 50,84	% 48,19	% 51,81
<b>Gizarte Zientziak</b>	146	191	337	% 43,32	% 56,68	% 50,11	% 49,89
<b>Irakaskuntza Teknikoak</b>	87	163	250	% 34,80	% 65,20	% 34,31	% 65,69
<b>Giza Zientziak</b>	50	90	140	% 35,71	% 64,29	% 43,62	% 56,38

Taula honetan ikusten da:

- Zientzia-arlo guztietan, gizon gehiagok parte hartzen du PIUetan, emakumeek baino
- Osasun Zientzietan, langile taldean emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan arren (% 25 gehiago), PIUetan % 3 gizon gehiago dira
- Zientzia Esperimentaletan, PIUetan dagoen parte-hartzea hurbildu egiten zaie langile taldeko ehunekoari, % 1eko aldakuntzarekin.
- Gizarte Zientzietan, langile taldeko presentzia ia % 50ekoa izan arren, gizonek % 13 gehiago parte hartzen dute PIUetan
- Irakaskuntza Teknikoetan, PIUetan dagoen parte-hartzearen ehunekoek ia bat egiten dute langile taldeko ehunekoekin.
- Giza Zientzietan, ia % 13 gizon gehiago dira langile taldean emakumeek baino; eta alde hori % 28,5 handitzen da PIUetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Langile taldean duten kopuruari dagokionez duten parte hartzean:

	<b>% Ema</b>	<b>% Giz</b>
<b>Osasun Zientziak</b>	% 21,48	% 38,51
<b>Zientzia Esperimentalak</b>	% 46,70	% 44,92
<b>Gizarte Zientziak</b>	% 22,09	% 29,03
<b>Irakaskuntza Teknikoak</b>	% 23,20	% 22,70
<b>Giza Zientziak</b>	% 18,52	% 25,79

- Osasun Zientzietan, gizonek % 17 gehiago parte hartzen dute emakumeek baino langile taldean duten kopuruari dagokionez.
- Zientzia Esperimentaletan, non ia langile taldearen erdia PIUren batean dagoen, emakumeen parte-hartzea gizonena baino ia % 2 handiagoa da.
- Gizarte Zientzietan, gizonek % 7 gehiago parte hartzen dute emakumeek baino
- Irakaskuntza Teknikoetan, emakumeek % 0,5 gehiago parte hartzen dute gizonek baino
- Giza Zientzietan, gizonek % 7 gehiago parte hartzen dute emakumeek baino.

INak arloka nola banatzen diren aztertzean, kasu honetan balio absolutuak erabiliz, ikusten da zientzia-arlo guztietan gizonezko INak gehiago direla emakumeak baino, baina gainera:

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Osasun Zientziak</b>	2	4	6
<b>Zientzia Esperimentalak</b>	3	9	12
<b>Gizarte Zientziak</b>	1	9	10
<b>Irakaskuntza Teknikoak</b>	0	8	8
<b>Giza Zientziak</b>	2	4	6

- Ez dago emakumezko INrik Irakaskuntza Teknikoetan, baina 8 gizonezko IN daude.
- Gizarte Zientzietan emakumezko 1 IN dago, eta 9 gizonezko IN
- Zientzia Esperimentaletan 3 emakumezko IN daude, eta 9 gizonezko IN
- Osasun Zientzietan eta Giza Zientzietan 2 emakumezko IN daude eta 4 gizonezko IN.

### 7.3 Adin-tartearen arabera

	<b>Ema PIU</b>	<b>Giz PIU</b>	<b>Guztira</b>	<b>% Ema PIU</b>	<b>% Giz PIU</b>	<b>% PI-Ema</b>	<b>%PI-Giz</b>
<b>&lt; 30</b>	74	33	107	% 69,16	% 30,84	% 59,44	% 40,56
<b>30 - 39</b>	121	116	237	% 51,05	% 48,95	% 53,48	% 46,52
<b>40 - 49</b>	185	241	426	% 43,43	% 56,57	% 45,29	% 54,71
<b>50 - 59</b>	135	259	394	% 34,26	% 65,74	% 40,73	% 59,27
<b>&gt; 60</b>	31	69	100	% 31,00	% 69,00	% 28,32	% 71,68

Taula honetan ikus daiteke:

- 30 urtetik beherako tartean, emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute, langile taldean duten kopurua baino % 10 gehiago.
- 30 eta 39 urteko tartean, emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute, baina langile taldean duten kopurua baino zertxobait gutxiago.
- 40 eta 59 urte bitarteko tartean, emakumeek gizonek baino gutxiago parte hartzen dute PIUetan, eta langile taldean duten ehunekoen azpitik.
- 60 urtetik gorako tartean, emakumeek gizonek baino askoz gutxiago parte hartzen dute, baina langile taldean duten kopurutik gora.

Parte-hartzea langile taldean duten kopuruari dagokionez aztertzean, honako hau ikusten da:

	<b>% Ema</b>	<b>% Giz</b>
<b>&lt; 30</b>	% 23,05	% 15,07
<b>30 - 39</b>	% 22,49	% 24,79
<b>40 - 49</b>	% 34,39	% 37,08
<b>50 - 59</b>	% 26,73	% 35,24
<b>&gt; 60</b>	% 27,43	% 24,13

- 30 urtetik beherako eta 60 urtetik gorako tartean, emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute, langile taldean duten kopuruari dagokionez.
- Gainerako parte guztietan, pertsona kopuru handienak dituztenak, alegia, gizonak dira beti gehiago parte hartzen dutenak; alde nabarmenena 50 eta 59 urte bitarteko tartean dago.

INak adin-tartearen arabera nola banatzen diren aztertzean, honako hau ikusten da:

	<b>Ema</b>	<b>Giz</b>	<b>Guztira</b>
<b>&lt; 30</b>	0	0	0
<b>30 - 39</b>	0	1	1
<b>40 - 49</b>	6	9	15
<b>50 - 59</b>	1	19	20
<b>&gt; 60</b>	1	5	6

- 42 INetatik, 34 gizonak dira, % 80,95
- Alde handiena 50 eta 59 urte bitarteko tartean dago: 19 gizon, 1 emakume
- Alde txikiena 40 eta 49 urte arteko tartean dago: 9 gizon, 6 emakume
- Gehien-gehienek, 35 INk, % 83,33k, 40 eta 59 urte bitarte dituzte.

amen to zabai 2021




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

## IV. EMAKUMEEK ETA GIZONEK IKERKETAN IZAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN BILAKAERA

### 1. Ikerketa-proiektuetan parte hartzea




Langile taldean:

- Emakumeen ehunekoa 2007. urteko % 44,39tik 2011. urteko % 46,08ra doa

Ikerketan:

- Emakumezko ikertzaileen ehunekoa 2007. urteko % 42,32tik 2011. urteko % 44,55era doa, betiere langile taldean duten ehunekotik beherago, 2011. urteko % 1,53ren eta 2008. urteko % 3,93ren artean.
- Gizonezko ikertzaileak, aldiz, langile taldean duten presentzia baino gehiago dira, ehuneko beretan.


### G23. Emakumezko/gizonezko ikertzaileen ehunekoa langile taldeari dagokionez



- Gizonezkoen ehunekoa emakumeenaren gainetik mantentzen da, urte guztietan.


**Oharra:** Azken urteko gehikuntza nabarmena zor zaio, zati handi batean, PIUen sorrerari esker, aurreko puntuan adierazi den bezala. Kontuan hartu behar da PIUek, kasu askotan, datuak lortzeko sisteman erabilitako erregistroen bikoizketa ekarri dutela (ikus I. eranskina). Gehikuntza hori diagnostiko honetako grafiko askotan ikus daiteke.

#### 1.1 Parte-hartze motaren eta urtearen arabera



- Arduraldi osoa zuten irakasle doktoretatik: 2007an, emakumeak % 40,08 ziren, eta 2011n, % 42,26.
- 2007an emakumezko ikertzaile nagusiak % 30,32 ziren, eta 2011n, % 34,27
- Horrek esan nahi du epe horretan, 2007ko gizonen ehunekoetako aldea 39,36tik 2011ko 31,46ra pasatu zela.







Emakumezko eta gizonezko ikertzaileen ehunekoak, alde txiki batzuekin, gizonek eta emakumeek langile taldean duten bilakaerari jarraitzen diote:


- 2007an, langile taldeko emakumeak % 44,39 ziren, eta ikertzaileak, % 45,58
- 2011n, langile taldeko emakumeak % 46,08 ziren, eta ikertzaileak, % 46,33

#### *Proiektuetako parte-hartzea langile taldeari dagokionez*




- Emakumezko eta gizonezko ikertzaileen ehunekoak, langile taldean duten kopuruari dagokionez, antzekoak dira
- Ez da gauza bera gertatzen INen kasuan, non gizonek emakumeak gainditzen dituzten beti.

## 1.2 Zientzia-arloaren eta urtearen arabera




- Emakumeek langile taldean duten ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa da.
- Emakumezko ikertzaileen ehunekoa langile taldean duten ehunekoa baino apalagoa da, eta aurkakoa gertatzen da gizonezko ikertzaileekin.




- Emakumeek langile taldean duten ehunekoa gizonezkoena baino txikiagoa da.
- Emakumezko ikertzaileen ehunekoa langile taldean duten ehunekoa baino bi puntu inguru apalagoa da, 2007 eta 2009an izan ezik, eta aurkakoa gertatzen da gizonezko ikertzaileen kasuan.

### G30. Gizarte Zientziak




- Emakumeen eta gizonen ehunekoa langile taldean % 50 ingurukoa da.
- Emakumezko ikertzaileen ehunekoa langile taldean duten ehunekoa baino txikiagoa izan da 2007, 2008 eta 2010ean, eta handiagoa, 2009 eta 2011n.

### G31. Irakaskuntza Teknikoak



- Emakumeek langile taldean duten ehunekoa gizonezkoena baino dezente apalagoa da.
- Emakumezko ikertzaileen ehunekoak aldaketak izan ditu langile taldean duen kopuruari dagokionez: altuagoa 2007 eta 2011n.

## G32. Giza Zientziak








	2007	2008	2009	2010	2011
◆ % Ik-Ema	% 42,28	% 34,91	% 57,62	% 36,67	% 40,49
□ % PI-Ema	% 42,01	% 42,71	% 43,89	% 42,49	% 43,62
▲ % Ik-Giz	% 57,72	% 65,09	% 42,38	% 63,33	% 59,51
✕ % PI-Giz	% 57,99	% 57,29	% 56,11	% 57,51	% 56,38

- Emakumeek langile taldean duten ehunekoa gizonezkoena baino txikiagoa da.
- Emakumezko ikertzaileen ehunekoa langile taldean duten kopurua baino txikiagoa izan da 2008, 2010 eta 2011n.


**Parte-hartzearen ehunekoak langile taldeari dagokionez**

Grafiko hauek adierazten dute zein diren parte-hartzearen ehunekoak ikerketa-proiektuetan, langile taldean duten kopuruari dagokionez.


Lerro urdina emakumeei dagokie, eta gorria, gizoni.



### 1.3 Adin-tartearen eta urtearen arabera




- Langile taldean, 30 urtetik beherakoen artean, emakumeak gehiago dira gizonak baino.
- Gizonek proiektuetan izan duten parte-hartzea langile taldean duten presentzia baino handiagoa izan da; aurkakoa gertatzen da emakumeen kasuan, 2011. urtean izan ezik.




- Langile taldean, 30 eta 39 urte bitarteko pertsonen artean, emakumezkoak gehiago dira gizonak baino.
- Hala ere, gizonezko ikertzaileen ehunekoak emakumezko ikertzaileena baino handiagoa izan da beti, azken urtean izan ezik, berdinak baitira.

### G39. 40 eta 49 urte bitartean




- Langile taldean, 40 eta 49 urte bitarteko pertsonen artean, gizonak gehiago dira emakumeak baino.
- Ikerketa-proiektuetako parte-hartzean, gizonak langile taldean duten kopurua baino gehiago izaten jarraitzen dute, 1 eta 4 puntu artean

### G40. 50 eta 59 urte bitartean



- Langile taldean, 50 eta 59 urte bitarteko pertsonen artean, gizonak gehiago dira emakumeak baino.
- Ikerketa-proiektuetako parte-hartzean, gizonak langile taldean duten kopurua baino gehiago izaten jarraitzen dute, 3 eta 7 puntu artean








- Langile taldean, 60 urtetik gorakoen artean, % 70 baino gehiago gizonak dira
- Proiektuetako parte-hartzeari dagokionez, gizonek langile taldean zuten kopurua gainditu zuten 2007. eta 2008. urteetan, eta emakumeek beraiena, 2009, 2010 eta 2011n.



**Parte-hartzearen ehunekoak langile taldeari dagokionez**

Ikerketa-proiektuetako parte-hartzearen ehunekoak langile taldeko presentziari dagokionez hauek dira (lerro urdina emakumeei dagokie, eta gorria, gizonei):




- Gizonezko ikertzaileen ehunekoa emakumezko ikertzaileena baino handiagoa da, 30 urtetik beherako tartean izan ezik.


#### 1.4 Parte-hartze motaren, zientzia-arloaren eta urtearen arabera

##### *Emakumezko eta gizonezko ikertzaile nagusiak*

Kasu honetan, langile taldea irakasle eta ikertzaileen doktoreena da




- Emakumeek irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten presentzia gizonezkoena baino handiagoa da.
- Aldiz, emakumezko eta gizonezko ikertzaile nagusien banaketa aurkakoa da, hain justu.



- Gizonek IN gisa duten parte-hartzea irakasle eta ikertzaileen doktore taldean duten kopuru baino askoz handiagoa da, eta alde hori 2007ko % 7,58tik 2011ko % 9,57ra handitu da


## G49. INak Gizarte Zientziak



	2007	2008	2009	2010	2011
% Ik-Ema	24,44	37,35	40,00	35,59	40,85
